

HITZ BITAN

EKIALDE HURBILA. Nazioartekoaren esku zen, PANekiko akordio batengatik

Ustezko kontrabandoagatik Jerikon preso zen palestinarra askatzeko agindu du epaile batek

Erredakzioa | DONOSTIA

Fuad Shubaki Palestinako segurtasun indarren aurrekontuen arduradun ohi eta armaz beteta atzemandako *Karin A* itsasontziaren uestezko erantzulea askatzeko agindu zuen atzo Ramalako Auzitegi Gorenak, froga eza-gatik.

Fuad, FPLP Palestina Askatzeko Herri Fronteko buru Ahmed Saadat eta beste lau lagun Jerikoko espetxean Washington eta Londresen zaintzapean uztea onartu zuen Palestinako Aginte Nazionalak apirilean, Israelek Jasser Arafat presidentearen setioa altxa zezan. Fuaden abokatuak Arafati eskatu dio Jerikon atxikitzeke, babestuta egon dadin.

Israelgo soldaduek gutxienez hamar lagun atxilotu zituzten atzo Zisjordaniako Beit Furik herrian. Iturri palestinarren arabera, bertako FPLPko burua,

haren laguntzaile bat, Arafaten Al Fata mugimenduko bi kide eta beste sei ekintzaile ziren atxilotuak. Nabalusen palestinarr bat hil zuten soldaduek eta beste bat Gazako Khan Junis hirian.

Bestetik, Tel Avivek agindu

zion atzo PANi zergengatik zor dizkion 420 milioi dolarretatik 28 ordainduko dizkiola, funtzionarioen soldatak ordaindu ahal izan ditzan. Saudi Arabiak, berriz, 15 milioi dolarreko diru laguntza emango dio, Israelgo irriaren arabera.



NASSER ISHTAYEH / AP

Soldaduek Nabalusen hil zuten palestinarr bat, gorputegian, atzo.

**KUTXA AURREIKUSPEN-PLAN BERMATUAK**

Zeure etorkizuneko **jubilazio-pentsioa** osatzeko, **Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatuek**, **kutxak** berak bermaturiko **errentagarritasunaz** gain, **zerga-aurrezpen** garrantzitsua eskaintzen dizute.

Bi modalitate aukeran:

%17,5 -eko errentagarritasun bermatua
2008ko azaroaren 6an.

%12,5 -eko errentagarritasun bermatua
2008ko azaroaren 6an.
+
%25 DJ EuroStoxx 50aren hileko batez-
besteko birbalioztapenaren %25,
2008ko azaroaren 6an*

BAKAR-BAKARRIK 2002ko ABENDUAREN 31ra ARTE
edo plan bakoitzarentzat ezarritako inbertsio-kopurura iritsi -bakarrarte.

ETA AUKERATU ZEURE OPARIA!

KUTXA AURREIKUSPEN- ETA PENTISIO-PLANAK

Jubilazioa ez baita halabehar butsa

Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatuek Kutxa Bi BGAE-ari axikiak daude.

* Hileko batezbesteko birbalioztapena indizearen amaierako eta hasierako erreferentziaren arteko ehuneko diferentzia dela ulertzen da. Hasierako erreferentzia: DJ EuroStoxx 50aren balioa ekitaldiaren amaieran, 2003-1-9an. Amaierako erreferentzia: DJ EuroStoxx 50aren balioa batezbesteko aritmetikoa hilabete bakoitzeko 6. eguneko saioaren amaieran edota jaieguna egokituko balitz, orduan hurrengo bai-egunean, 2003ko Otsailetik 2008ko Urrira bitarteko hilabeteetan, eta 2008ko Azaroaren 6an, beraz jaieguna egokituko balitz, aurreko bai-egunean.

ESTATU BATUAK

Kontabilitate Agentziak Dick Cheneyren kontra jarritako helegiteari uko egin dio epaile batek

John Bates epaileak AEBetako presidenteorde Dick Cheneyren kontra GAO Kontabilitate Agentzia Orokorra jarritako helegitea errefusatu du. GAOk eskatu zuen Etxe Zuriaren Plan Energetikoa ontzeko Cheney zein enpresabururekin bildu zen jakinarazteko. Epaileak argudiatu zuenek, Kongresuak hori eskatu ez duenez, GAOk ez zuen eskaerarako oinarririk.

IRAN

Epailetzako goi buru batek dimisioa eman du Aghajariri ezarri heriotza zigorreratik protestan

Irango apaizgoa kritikatzegatik Hashem Aghajari irakaslea hiltzera zigortu dutelako protestan Hussein Mir-Mohammad Sadeghi goi epaileak dimisioa eman du.

TXETXENIA

Ingushetiako errefuxiatuak kanporatzeari utziko diola agindu du Putinek

Vladimir Putin Errusiako presidentea agindu zuen atzo Ingushetiako errefuxiatuak Txetxeniara itzularaztera behartzeari utziko diola Moskuk.